

Gabon guztioi:

Ya falta menos para volvernos a encontrar. Este año, como es tradición, volveremos a bajar del monte a Estella-Lizarra Mari Domingi y yo, Olentzero. Nos encanta encontrarnos con los txikis de esta bonita ciudad. Sabemos que es un día muy especial para todos; durante todo el año tenemos la mirada puesta en este día y, al igual que vosotros/as, estamos impacientes por que la noche mágica llegue .

A pesar de nuestro gran día, no podemos olvidarnos de nuestro trabajo diario, en la txondorra y en la recolección de plantas para curarnos y curaos. Nos gusta también proteger nuestros montes y entorno, retirando basura, plantando árboles y cuidando

de los animales. Os animamos a que hagáis lo mismo disfrutar de nuestras montañas y cuidarlas. También os animamos a cuidar y a disfrutar el Euskera.

Mediante estas líneas os queremos adelantar los planes que tienen preparados los amigos y amigas de Mari Domingi y Olentzero en Estella-Lizarra, para los días 18 y 24 de diciembre.

Sábado 17 de diciembre.

A las 09:30h todos los txikis que quieran quedarán en Iranzu para subir al refugio de Larraiza, cerca de nuestra casa. Cuando estéis todas/os reunidos/as en el refugio, bajaremos Olentzero y Mari Domingi a recoger vuestras cartas para así poder leerlas a tiempo y preparar los regalos. Podéis subir con un vaso ya que os espera un chocolate caliente para recuperar fuerzas.

Viernes 24 de diciembre.

Es nuestro gran día y este año queremos celebrarlo durante toda la jornada. Por la mañana, nuestros amigos y amigas han preparado una kalejira con una txaranga que recorrerá las calles de la ciudad y que partirá de la Plaza de Santiago a partir de las 11:30. Os animamos a que acudáis vestidos de baserritarras, tanto a la mañana como a la tarde. Nos encantará comprobar que todos los rincones de Estella-Lizarra están llenos de color, de alegría y musika; algo que tanto nos gusta y necesitamos.

A las 18:00 bajaremos del monte, llegaremos al Puente de la Cárcel o Puente Picudo y de ahí, avanzaremos por Calle de la Rúa, acompañados de dantzaris que nos recibirán al son de unas boleras, en dirección a Plaza de San Martín. Una vez alcanzado el antiguo ayuntamiento, subiremos al balcón mientras la banda interpreta una de nuestras canciones. Sabemos que habrá alguna sorpresa más, pero no nos la han querido contar.

A continuación, bajaremos del Ayuntamiento, y en kalejira, iremos todos los txikis, jóvenes y mayores llenando las calles nuevamente de calor, alegría y musica. Durante el recorrido, se realizarán dos paradas para cantar conjuntamente: una en la Plaza de Santiago y otra en Plaza de los Fueros. El día terminará, como otros años, en Lizarra Ikastola, donde nos podréis ver de cerca, fotografiar y despedirnos hasta el próximo año.

Estamos muy nerviosos e ilusionados con este nuevo aire que le han dado a nuestra llegada. Como habéis comprobado es participativa y novedosa y nos hará inmensamente felices comprobar que toda la ciudad participa y disfruta de ella.

¡¡Animaos a participar!! Es día de reencuentros, de celebración y de sonrisas.
¡¡No faltéis a la cita!!

No queremos despedirnos sin agradecer a todos los grupos y personas que hacéis que ese día sea tan mágico y especial para todos y todas. Mila esker Estella-Lizarra por cuidarnos y acogernos tan bien.

Por último, y no menos importante, nos gustaría recordar que dada la situación pandémica en la que estamos inmersos es imprescindible que cuidemos de nuestra salud y la de los que tenemos a nuestro alrededor. Es por ello que os rogamos respeto frente a las medidas sanitarias así como el uso de la mascarilla durante la kalejira y las aglomeraciones.

Entre todos conseguiremos que la noche mágica de Mari Domingi y Olentzero brille con intensidad en Estella-Lizarra.

Hasta pronto.

Mari Domingi eta Olentzero.

(Carta traducida al castellano por Iratxe Bakedano Aramendia.)

Gabon guztioi:

Gero eta gutxiago falta da berriro elkar aurkitzeko. Aurten ere, ohitura denez, menditik Lizarrara jaitsiko gara Mari Domingi eta biok. Askok gustatzen zaigu hiri polit honetako txikiekin elkartzea. Badakigu oso egun berezia dela guztiontzat; urte osoan zehar egun horri begira egoten gara, eta zuek bezala, irrikaz gaude gau magikoa etor dadin.

Gure egun handia izan arren, ezin dugu ahaztu gure eguneroko lana, txondorra eta sendatzeko landareak biltzea. Gure mendiak eta ingurunea babestea ere gustatzen zaigu, zaborra kenduz, zuhaitzak landatuz eta animaliak zainduz. Gure mendiez goatzera eta zaintzera animatzen zaituztegu. Halaber, euskara zaindu eta goatzera ere animatzen zaituztegu.

Lerro hauen bidez aurreratu nahi dizkizuegu Mari Domingi eta Olentzeroren lagunek Lizarran, urriaren 18 eta 24rako dituzten planak.

Abenduaren 17a.

Larunbat horretan, 09:30ean, nahi duten txiki guztiak Irantzun elkartuko dira

Larraizako aterpera igotzeko, gure etxetik gertu. Denak aterpean bildurik zaudetenean, gu, Olentzero eta Mari Domingi, zuen gutunak jasotzera jaitsiko gara, garaiz irakurri eta opariak prestatu ahal

izateko. Eraman edalontzi bat txokolate bero bat zuen zain egongo baita indarrak berreskuratzeko.

Abenduaren 24a.

Ostirala gure egun handia da eta aurten egun osoan zehar ospatu nahi dugu. Goizean, gure adiskideek hiriko kaleak zeharkatuko dituen kalejira bat prestatu dute, txaranga eta guzti. Santiago plazatik abiatuko da, 11:30ean. Baserritar jantzita etor zaitezten animatzen zaituztegu, goizean zein arratsaldean. Lizarra kolorez, alaitasunez eta musikaz beteta ikusi nahi genuke, gustatzen zaigulako eta behar dugulako.

18:00etan menditik jaitsiko gara, eta Kartzelako zubira iritsiko gara. Hortik, Errua kalean barna egingo dugu, dantzariak lagunduta. Boleren soinupean hartuko gaituzte, San Martin plazara joateko. Behin udaletxe zaharrera ailegatuta, balkoira igoko gara eta bandak gure kantuetako bat joko du. Badakigu beste ezustekoren bat egongo dela, baina ez digute kontatu nahi izan.

Ondoren, udaletxetik jaitsiko gara, eta txiki guztiak, gazteak eta adinekoak kalejiran joango gara, kaleak berriz ere beroz, alaitasunez eta musikaz betetzen.

Ibilbidean zehar bi geldialdi egingo dira elkarrekin abesteko: bata Santiago plazan eta bestea Foruen plazan. Eguna, beste urte batzuetan bezala, Lizarra Ikastolan amaituko da non gertutik ikusi ahal izango gaituzuen, argazkiak atera eta elkarri agur esan datorren urtera arte.

Oso urduri eta ilusionatuta gaude gure etorrerari eman dioten aire berriarengatik. Ikusi duzuen bezala, parte-hartzailea eta berritzailea da, eta oso zoriontsu egingo gaitu hiri osoak parte hartzen duela eta horretaz gozatzen duela ikusteak.

Animatu parte hartzera!! Berriz elkartzeko, ospatzeko eta irribarre egiteko eguna da. Ez hutsik egin!

Ez dugu agur esan nahi egun hori guztiontzat hain magikoa eta berezia izatea egiten duzuenoi eskerrak eman gabe. Mila esker Lizarra, gu zaindu eta hain ongi hartzeagatik.

Azkenik, eta ez garrantzi gutxiagokoa, gogorarazi nahi dizuegu bizi dugun egoera pandemikoa dela-eta, gure osasuna eta inguruan ditugunena zaindu behar dugula, horregatik, osasun-neurriak errespetatzea eta maskara erabiltzea eskatzen dugu kalejiran eta jende pilaketetan.

Guztion artean lortuko dugu Mari Domingiren eta Olentzeroren gau magikoak distira handia izatea Lizarran.

Laster arte.

Mari Domingi eta Olentzero

